



1982an Karmengo Andre Maria kaleko erredakzioan: ezkerretik eskuinera Eskarne Mujika, Pablo Sastre (bizkarrez), Cristina Berra (zutik), Iñaki Uria eta Pello Zubiria.

(1919-2019) EHUNDU ARGIA

ARGIAk badu Egiatik zerbait



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zeruko Argia izatetik ARGIA izatera pasa zen erredakzioa, Kaputxinoek Oken-do kalean (Donostia) zuten lokalean egon zen azken tartetxoan. Baina Zeruko Argia, 36ko gerra, diktadura, "trantsizioa"... beste baterako kontakizunen kutxan gordeko ditugu.

Zein lekutan egon da, ordea, ARGIAko erredakzioa, artxiboa, zein izan dira inprentaren pausak, zein ibilbide izan du aldizkariak kokalekuei begira azken 35 urte hauetan?

"Kaputxinoetan" sortu zen ARGIA 1980an, langileek enpresa beren gain hartu zutenean. Egia auzora egin zuen salto generazio berriari, Zeruko-rik gabeak, 1981ean; Karmengo Andre Maria kalea, gaur egun ere ezaguna den "Kata" ostatuaren pareko lokalera. Bat baino gehiago izango da bertan zitaren bat egindakoa. Argazkiak errelatatzeko txoko iluna, erredakzioa, artxiboa eta abar prestatu zituzten, eta oso oker ez banago leihorik gabeko zulo horretan pasatzen zituzten gau eta egunak. Pareko tabernakoek ere izango dute makina bat kontu kontatzeko, baina hori ere beste baterakoen

kutxara. Egiako ekosistemaren parte egin ziren.

1985erako lekua txikitxo geratzen hasia zen eta lan komertzial batzuk ere egin zituzten ordurako, eta Egian bertan baina Ametzagaina kalera pasa ziren. Garai hartarako bazuten harremanik inprentaren batekin. Prozesua konplikatuagoa zen gaur egungo ereduarekin alderatuta eta inpresioaren fase guztiak ez zituen enpresa berak egin; hortaz, helburua zen prozesuaren ahalik eta zatiirik handiena autogestionatzea.

Hortik hurrengo saltoa 1988an Egia inguruko azken txokora, Mundaiz kalera; Tabakalera eta Gladys-Enea ondora. Inprentarako lehen makinak erosi zituen ARGIAk. Bi urte pasa zituzten lokal hartan, eta ordurako buruan zerabilten euskarazko egunkariaren sorrera, inprentak ere geroz eta leku gehiago eskatzen zuen, eta handik eman zen gaur egungo Lasarte-Oriako kokalekura aldaketa.

Egiak ARGIAren bizitzan zati garrantzitsu bat bete du, eta ez da kasualitatea lametzak, Antzak, Adurrek eta ARGIAk osatzen duten taldearen izena Ametzagaina izatea. ■

"Euskal Herriko astekari bakarra da. Pentsa zer ardura eta zer aukera!"

Josu Chueca,
Historialaria, ARGIAko
kolaboratzailea

Korrika prekarioaren jarraipena elkarlanean Ahotsa, Arainfo, Directa eta ARGIAk

Prekaritatearen aurkako Correscales lasterketak Bilbo eta Bartzelona batu ditu otsailaren 18tik 22ra bitartean. Movistar telefono konpainiako langileek abiatutako borrokari Euskal Herriko, Aragoiko eta Kataluniako dozenaka herri eragile batu zaizkio. Elkarlanean egin diogu jarraipena ARGIAk (hasieran, Bizkaia eta Gipuzkoako lurretatik pasa denean), Ahotsak (Nafarroara jo duenean), Arainfo (ondoren, Aragoiko zatiaz) eta La Directak (amaiera Kataluniatik kontatuz). Argia. eus-en ditugu hedabide guztion argazkiak, bideoak eta kronikak, Creative Commons lizentzia libreari esker.



Durangoan banatutako uhaza landareak hasiak dira entsalada bihurtzen

Gogoratzen Durangoko Azokan ARGIA eta Bizi-Baratzearen postutik nola ateratu ziren uhaztxoa eskutan, loresorta biltzan paperean bilduta, hostro berdeek jartzen zituzten "landatu nazazu zure etxean" aurpegitxoaren ondorioz poltsan sartzeak pena ematen zizula eta eskuak beti zut eramatera behartuta? Bada energia inbertsio horiek hasi dira emaitzak ematen, irakurle batek eskerronez bidali digun hau kasurako. On egin kazetaritza independenteak eta lurraren kulturak!